



**Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>adaburu</b> 'zuhaitzen adar multzoa'	«Haltzen <b>adaburuak</b> ikaratu egin ziren, eta txori-samalda bat atera zen ihesi.»	(111)
<b>adeitsu</b> 'errespetuz, begirunez, gizalegez'	«Obispoak agurrak eman zituen modu <b>adeitsu</b> batez, baina uko egin zion oilaskoari.»	(83)
<b>ahapeka</b> 'ia entzuten ez den ahotsaz'	«Roman larri hurreratu zitzaidan alkandora-iduna lotuz, eta <b>ahapeka</b> esan zidan...»	(31)
<b>ahaztuxe</b> 'nahikoa ahaztua, ahaztu xamar'	«Obispoak bezperako <b>baraua</b> ahaztuxe zuen, nonbait, txanda ezin harturik ibili behar izan baikenuen hari oilasko-muturren bat kentzeko.»	(92)
<b>ahitu</b> 'agortua, bukatua'	«Botila hura <b>ahituxea</b> zegoen, eta beste bat atera ziguten.»	(73)
<b>ahur</b> 'esku barrua'	«Fructuosoren esker oneko irribarrea ikusi nuen atzerako ispilutik, eta esku <b>ahurra</b> nola pasatzen zuen sabel aldetik.»	(48)
<b>aieka</b> 'aldea'	«Gure aurretik pasatu ziren denak eta, bidearen bi <b>aiekak</b> hartuta, milizianoa eta kamioia zeuden aldera abiatu ziren zuhurtzia handiz.»	(104)
<b>aienatu</b> 'uxatu, aldendu, desagertu'	«Inoiz baino gizonago ikusi nuen harkaitz haren gainean eserita, lan-jantzi zikin hark ordu arteko obispotasuna <b>aienatu</b> izan balio bezala.»	(112)
<b>aiezka</b> 'aieneka, oinazeko kekak	«...negarrak amorrua baretu balio bezala, eta azkenerako, ukabilak itxita, bular gainean batera erortzen utzi zituen, <b>aiezka</b> bihurtuta negarra.»	(111)
<b>aise</b> 'erraz'	«... <b>aise</b> pasatuko ginen, gurasoen ezkontzarako gonbit idatzia bagenu ere igarobaimentzat.»	(33)
<b>aixkidia</b> 'adiskidea' (adierazkorra)	«Amancio paretik kendu, haren <b>aixkidia</b> probatu nahi nuelako, eta probatu baino lehen garbitu didazue!»	(111)
<b>akaso</b> 'beharbada, agian, ausaz, apika'	« <b>Akaso</b> nire hesteek emango ditek hi ere esekitzeko adina!»	(12)
<b>akolito</b> 'apaizaren laguntzailea'	«Eta katixima-irakasle herrian, eta <b>akolito</b> , eta Begoñako Amatzoren gurtzaile...»	(11)
<b>alaena</b> 'halakoa'	«Azkenean, sartu, eta atea itxi zuen."...zornezaku <b>alaenak!</b> ", erantsi zuen orduan. Lasai hitz egin genezakeen, behintzat, "Aurrera", esan suen.»	(45)
<b>aldaka</b> 'kadera, gerri hegalkak'	«Lurrera zihoan bestela, eta <b>aldaketatik</b> heldu zion Romanek.»	(76)
<b>aletu</b> 'garandu, banan-banan soltatu'	«Banan-banan hasi nintzaion araudia, buruan sortu ahala, <b>aletzen</b> .»	(22)
<b>alkandora-idun</b> 'atorraren goiko partea, anokia'	«Roman larri hurreratu zitzaidan <b>alkandora-iduna</b> lotuz, eta ahapeka esan zidan...»	(31)
<b>andetan eraman</b> 'biren artean airean eraman'	«Jaka haietara etzanarazi zuten Fructuoso, eta <b>andetan eraman</b> zuten besteak zeuden aldera.»	(112)
<b>anpolai</b> 'negar anpulua, malko lodia'	«Nik bi <b>anpolai</b> sentitu nituen masailetan behera.»	(107)
<b>arbitarako</b> 'arbiak hazteko' (baratz landare	«Obixpo handiren bat omen zaukatek atxilotuta Donostian, eta <b>arbitarako</b> simaur egokia omen duk obixpo jendea...»	(41)
<b>arestian</b> 'apur bat lehenago'	«...esan zuen Roman seinalatu, eta nik <b>arestian</b> makinaz jotako papera erakutsiz.»	(39)
<b>argidotarra</b> 'gorena, txit handia'	«Donostiako alkate berriak, D. Jose de Múgica y Múgica jaun <b>argidotarrak</b> , bere zaurietatik...»	(136)
<b>arranguraz</b> 'kexuka, aieneka'	«Ez zen <b>arranguraz</b> ari, lasai eta irribarrez baizik...»	(8)
<b>arroila</b> 'ubidea, karkaba' (urak eginikoa)	« <b>Arroilan</b> behera jaitsi ginen, orbela eta lokatza dena batera nahasten zen parajeen...»	(109)
<b>artzapezpiku</b> 'obispoa'	« <b>Artzapezpikuak</b> berak kontatu zuenez, trebetasun handiz atzipetu zituen kartzelako bere zaindari oiesak, eta, gorri-separatisten izutik ihesi zihoala...»	(135)



<b>aski</b> 'nahiko'	«...gero eta gehiago jo zuen amaren hizkuntza erabiltzera, ordurako <b>aski</b> herdoildua bazuen ere.»	(16)
<b>asto beltzarenak esan</b> 'inon direnak esan, itzelezkoak'	«Ez al zituen orduantxe bertan Fructuosoren kontra <b>asto beltzarenak esan</b> .»	(35)
<b>atarramentu</b> 'emaitza, onura'	«Ni pozik, <b>atarramentua</b> nahi nuela, zirt edo zart.»	(120)
<b>atxilo hartu</b> 'atxilotu'	«Handik gutxira <b>atxilo hartu</b> zutela nire laguntxoek, horrela esan zidan: "Hire laguntxoek".»	(11)
<b>atzipetu</b> 'harrapatu, preso hartu'	«Artzapezpikuak berak kontatu zuenez, trebetasun handiz <b>atzipetu</b> zituen kartzelako bere zaindari oiesak, eta, gorri-separatisten izutik ihesi zihoala...»	(135)
<b>aurpegiera</b> 'aurpegikera, imintzioa, keinua'	«—Ez al dik barruko errairik mugiarazten? —esan zidan, errukia eta pena dena batera adierazten zuen <b>aurpegieraz</b> .»	(47)
<b>azkenburukoetan</b> 'postrerako'	« <b>Azkenburukoetan</b> , bi gerezi pare hartu zituen Amanciok, eta belarrietatik zintzilik jarrita hasi zen frantsesez kantari.»	(50)
<b>bahituran utzi</b> 'hipotekaturik, berme gisa'	«...milizianotarako CNTn izena eman nuenean, <b>bahituran utzi</b> behar izan nuen kamioia ere...»	(32)
<b>baietsi</b> 'segurtatu, konfirmatu'	«—Zarautzaino— <b>baietsi</b> zidan Romanek.»	(94)
<b>Bakunin</b> 'iraultzaile errusiarra, anarkista'	«Berori mutu. Biba <b>Bakunin!</b> , besterik ezin du esan.»	(22)
<b>balazta</b> 'frenoa, galga'	«"Hemen izango da", esan nuen, autoa gelditu eta eskuko <b>balaztari</b> gora eragiten niola.»	(68)
<b>bapore</b> 'lurrun itsasontzia'	« <b>Baporean</b> lekurik ez zegoela, eta, zer arraio, ez zela gezurretan hasiko orain.»	(100)
<b>barau</b> 'baraualdia, ezer jan gabeko denbora'	«Obispoak bezperako <b>baraua</b> ahaztuxe zuen, nonbait, txanda ezin harturik ibili behar izan baikenuen hari oilasko-muturren bat kentzeko.»	(92)
<b>barau(rik) egon</b> 'jan gabe, ezer hartu gabe'	«Zigarro bat falta nuen, baina salan utzia nuen toxa, eta nahiago nuen <b>barau</b> , beste sermoi bat entzun baino.»	(26)
<b>barealdi</b> 'lasaialdia, istilurik gabeko	«Fructuosok "¡Caca amavirgiñari!" kamioian idazteko aprobe txatu zuen <b>barealdia</b> , eta ni Amanciorekin eta neskekin...»	(56)
<b>bart</b> 'joan den gaua, igaro den gaua'	«—Toki ederrean zagog <b>barteko</b> araudia! Orain arte ez didak puntu bakar batean ere esana egin.»	(47)
<b>basta</b> 'zama garraiatzeko tresna,	«Asto ganean, txalma edo <b>bastak</b> edo zerbait jarriko ziotela, eta hantxe sartuta ongi joango zela orduan.»	(120)
<b>bebarru</b> 'entreplanta, beheko solairua-	« <b>Bebarruan</b> guardian zegoen miliziano-bikoteari paperak erakutsi, eta gora igotzeko esan ziguten.»	(69)
<b>belaxka</b> 'txepela, kakatia, biguna'	«Zer iraultza klase egingo genuen noski estudiante koadrila <b>belaxka</b> bat eskutik hartuta.»	(16)
<b>beroen ibili</b> 'erabakita egon, animatuta'	«Bilera bukatu berria eta botila bat ardo beltzen inguruan denok eserita. Fructuoso <b>zebilen beroen</b> .»	(13)
<b>berori</b> 'zu' (3. pertsonako adizkiekin)	«Hondamendia ekarri nahi dit <b>berorrek</b> don Roman...»	(9)
<b>berorika</b> 'errespetuzko tratamendua, 3.	«Kontuak kontu, Meza Berria eman zuenez geroztik, don Roman izaten hasi zen ordu arte Roman izan zena, eta <b>berorika</b> hasi nintzaion hizketan.»	(20)
<b>bet-betan</b> 'bat-batean'	«Eta logela aldera joateko imintzioa egin zuen. "Konpañera!", egin zuen garrasi. Gandorra zuritu zitzaidan <b>bet-betan</b> .»	(12)
<b>betiberdin</b> 'monotonia'	«...ez omen zegoen gehiago jasaterik hango errezo eta hango <b>betiberdin</b> , betiberdin gogaikarria.»	(67)
<b>biharamun</b> 'hurrengo eguna'	« <b>Biharamun</b> goizean irtengo ginela agindu nion.»	(23)




<b>birao</b> 'maldizinoa, hitz gorria'	«Eta zer zen ba libertario bat, <b>birao</b> rik esaten ez bazuen (...). Deus ez. Mahats makatza.»	(17)
<b>bolo-bolo</b> 'batetik bestera, denen ahotan'	«Hizpidea, beste askotan bezala, gerra hasi berritan Bilbon <b>bolo-bolo</b> ibili zen gertakari batek sortu zuen.»	(13)
<b>boneta</b> 'txanoa / koroa'	«Romanek begirunez kendu zion obispo- <b>boneta</b> buru gainetik.»	(80)
<b>burkide</b> 'aurkakoa, lehiakidea, etsaia'	«...arbolatik arbolara aurrera tiroka elkarri babes emanez, aurreragoko posizio onen bat hartzen saiatu ginen, handik hobeto sutuko geniela-eta <b>burkideei</b> .»	(106)
<b>burlaizez</b> 'harroxko'	«—Indarra hartzeko aukera eman behar zaiok gauean lanean ibili denari...—erantzun zidan, <b>burlaizez</b> .»	(28)
<b>burutazio</b> 'gogoeta, pentsamendua'	«...nire <b>burutazioetan</b> sartua, leihoko saretaren zirrikitu artetik lehen eguzki-printzak sumatzen ari nintzenean, logelako atearen kirrinka entzun nuen.»	(27)
<b>CNT</b> 'sindikatu anarkista'	«Ez naiz ezertaz damu, eta biziberrituta nago ni dagoeneko. <b>CNTkoa</b> naiz orain...»	(10)
<b>desenkusatu</b> 'aitzakiak jarri, barkamena	« <b>Desenkusatzen</b> hasi nintzaion, baina berehala konturatu nintzen ezeren susmo txarrik ez zidala hartu...»	(34)
<b>destainaz</b> 'mesprexuz'	«—Osasuna, kakagixon! —esan zidan; eta listua bota zuen lurrera <b>destainaz</b> —.»	(110)
<b>doi</b> 'juxtua'	«Handik bi ordura, guk Santutxoko bentan baxo erdi pare bat hartzeko denbora <b>doia</b> , bueltan zen umea; eta haren atzetik, Albizturko parrokoa arnastetuka...»	(121)
<b>egonarri</b> 'patxada, eroapena, pazientzia'	«—Nondik dator auto hori? —galdetu nion, <b>egonarria</b> galduta.»	(61)
<b>eragotzi</b> 'galarazi, debekatu'	«Beste bat ere ibili zen sartzekotan (...) baina <b>eragotzi</b> egin zion Fructuosok.»	(16)
<b>erantzi</b> 'arropa kendu, biluztu'	«Sorbaldak harrotu zituen hark ere, herabe. <b>Eranzten</b> ez zela ikusita, ea zeren zain zegoen galdetu nion...»	(24)
<b>erasanda</b> 'afektatuta, zerbaiten eraginpean'	«...baina atzera aulkian eseri behar izan zuen pixka batean; xanpainak <b>erasanda</b> zegoen.»	(74)
<b>eri</b> 'gaixoa, ahuldua'	«Gainera, Roman gisa hartan jantzita ikusiz gero, ustekabearen eraginez, auskalo zer gerta zitekeen haren bihotz <b>eriarekin</b> .»	(69)
<b>errai</b> 'hesteak, triapak'	«—Ez al dik barruko <b>errairik</b> mugiarazten? —esan zidan, errukia eta pena dena batera adierazten zuen aurpegieraz.»	(47)
<b>errebero</b> 'esne jetzi berria'	«Gogorrago jo behar zela, haritza botatzeko ez zela labana aski. Amanciok orduan berak idiarena joko zuela eta kopoirik dibinoena beteko zuela	(17)
<b>erretilu</b> 'azpila, bandeja'	«Jaki-ontzi handi bat zekarren eskuetan, eta neska gazte bat agertu zen haren atzetik, <b>erretilu</b> batekin.»	(83)
<b>eseki</b> 'eskegi'	«Akaso nire hesteek emango ditek hi ere <b>esekitzeko</b> adina!»	(12)
<b>eskulotu</b> 'gatibatu'	«...eta, burkideak mende hartuta, bizkor asko <b>eskulotu</b> zituzten bizkarraldean.»	(106)
<b>esnezuria</b> 'arren hazia, esperma'	«—Hori da dena kaka eta pixa eta <b>esnezuria</b> !»	(18)
<b>espantuka</b> 'izu laborriz, guztiz ikaratuta'	«Ikusi gintuen obispoak halako batean, eta <b>espantuka</b> hasi zen guri deika. Larritasunezko unea zen, inondik ere.»	(109)
<b>estrapezuka</b> 'tupust edo estrapo zu eginez'	«Jaiki, haztamuka galtzazpiak bilatu, ta haiek eskuan hartuta, haztamuka berriz ere eta bidean aurkitzen nuen guztiarekin <b>estrapezuka</b> ...»	(7)
<b>etxeorde</b> 'txabola antzeko eraikina'	«Baserriaren aurreko <b>etxeorde</b> batean sartu genuen autoa.»	(80)
<b>ezaxol</b> 'ardura barik'	«...eta ni Amanciorekin eta neskekin zigarroa erretzen geratu nintzen lasai-lasai, Fructuosok egiten zuenari <b>ezaxola</b> .»	(56)




<b>ezkaratz</b> 'etxeko sarrera aretoa / sukaldea'	«Atea zabaldu, eta <b>ezkaratzean</b> obispoa sartzen ikusi zuenean, eskuari heldu eta muin egin zion hark ere eraztunean.»	(81)
<b>ezkeldu</b> 'begiak oker antzera jarri'	«Osasun kalea irakurri ahal izan nuen, begiak <b>ezkeldu</b> eta idazpuru batean.»	(78)
<b>ezproi</b> 'aldiak akuilatzeko oinetako	«Bai, txirrin", erantzun zidan jauzika, eta, ipurmasailak estutzea <b>ezproi</b> sartzea izan balitz bezala, bizkorrago ekin zion zamalkatzeari.»	(7)
<b>fardel</b> 'zakutotxoa, paketetxoa'	«Niganaino etorri, eta <b>fardel</b> bat eman zidan.»	(93)
<b>gailen</b> 'gorena, handiena'	«Erretorikan beti kalifikazio <b>gailena</b> ateratzen zuen apaizgaitegiko garaietan.»	(101)
<b>galai</b> 'mutil gazte ezkongabea eta	«Estuak omen ziren kontu horietan komentuan, eta, konturatu zirenean, urrutiratu egin zuten <b>galai</b> handik.»	(67)
<b>gandor</b> 'oilarraren buruko zati gorria'	«Orduan, zer? Aurrera...—eta sukaldeko leihoa zabaldu nuen, <b>gandorra</b> gorri, oilartuta erabat...»	(11)
<b>garadi</b> 'iratia, ira edo garo ("helecho")	«...baina ezer ez, harik eta tontor baten barrenean, <b>garadi</b> baten mugan, garo zapalduaren arrastoa aurkitu genuen arte.»	(108)
<b>garbi jakin</b> 'zalantza barik jakin, ziur egon'	«Zergatik ez dakit, <b>garbi dakidana</b> da orduan ez nintzela anarkista.»	(20)
<b>gazitatu</b> 'abisatu, jakinarazi'	«Durrutiren mandatariren bat etortzekoa zela une batetik bestera, hala <b>gazitatu</b> ziotela bezperan telefonoz Donostiatik...»	(38)
<b>gogaikarriro</b> 'gogaitzeko edo aspertzeko eran'	«Hasieran, ez zieten ezer erantzun, baina <b>gogaikarriro</b> beti gauza bera esaten jarraitu zieten ezkaratzeraino.»	(67)
<b>gogaituta</b> 'aspertuta'	«Horrelako anarkista-taldeari, aise entregatuko ziotela obispoa. "Bai, fusilatze!", esan nion nik <b>gogaituta</b> .»	(46)
<b>gogatu</b> 'konbentzitu, limurtu'	«Zazpi Kalerako bide osoa Karmen <b>gogatu</b> nahian eman nuen.»	(32)
<b>gonbit</b> 'gonbidapena'	«...aise pasatuko ginen, gurasoen ezkontzarako <b>gonbit</b> idatzia bagenu ere igaro-baimentzat.»	(33)
<b>gurtesian</b> '(gurdiaren) hegaletako hesia,	«Armak eta munizioak kamioian kargatu, bandera gorribeltzak <b>gurtesian</b> ezker-eskuin sokaz nolabait kateatu...»	(43)
<b>gurtetxe</b> 'zamak eramateko lekua'	«...tankea gasolinaz bete, eta nor kabinan joan eta nor <b>gurtetxean</b> , aurreneko liskarra.»	(43)
<b>gurtzaile</b> 'adoratzailea, gurtzen duena'	«Eta katixima-irakasle herrian, eta akolito, eta Begoñako Amatzoren <b>gurtzaile</b> ...»	(11)
<b>hagatan</b> 'makiletan, paluetan'	«...Karmeni agindu zion, bat-batean, egoitzan zeuden bandera gorri-beltz guztiak hartu eta <b>hagatan</b> biltzen hasteko...»	(41)
<b>haltza</b> 'erreka hegaletako arbola'	« <b>Haltzen</b> adaburuak ikaratu egin ziren, eta txori-samalda bat atera zen ihesi.»	(111)
<b>harra</b> 'jakin-mina, jakingura'	«...Urbietan kalean aurrera gindoazela, ezin izan nion gehiago barruko <b>harrari</b> utsi; automobila espaloien kontra geldiarazi eta (...) Karmeni esan nion...»	(64)
<b>haurride izan</b> 'senide izan, familiako'	«...baina neuk pentsatzeko denak <b>haurride</b> baldin baginen, iraultza egiteko bazen ere, haurride biziak beharko genituela.»	(91)
<b>haurridetasun</b> 'senidetasuna'	« <b>Haurridetasunez</b> ; horretan ados ginela-eta bera eta ni.»	(101)
<b>haztamuka</b> 'hatzez, ilunetan, ukitzen'	«Jaiki, <b>haztamuka</b> galtzazpiak bilatu, eta haiek eskuan hartuta, haztamuka berriz ere eta bidean aurkitzen nuen guztiarekin estrapezuka...»	(7)
<b>herabe</b> 'lotsati'	«Sorbaldak harrotu zituen hark ere, <b>herabe</b> . Eranzten ez zela ikusita, ea zeren zain zegoen galdetu nion...»	(24)
<b>herdoildu</b> 'ugertu, oxidatu'	«...gero eta gehiago jo zuen amaren hizkuntza erabiltzera, ordurako aski <b>herdoildua</b> bazuen ere.»	(16)






<b>herra</b> 'hegigoa, amorrua'	«Ezin izan nuen <b>herra</b> lotu, eta pistolaren kirtenez jo nuen buruan.»	(106)
<b>higuigarri</b> 'nazkagarri, okaztagarri'	«...bazezilen zerbait, ordea, nire barruan arrats hartako jarduna <b>higuigarri</b> egiten zidana. Etena horren modu oiesean antzetzua ikusteak, beharbada.»	(17)
<b>hits</b> 'tristea, goibela'	«..."esanekoa ez izateagatik gertatu zaiok", umore pixka bat jarri nahi izan nuen sala <b>hits</b> hartan.»	(115)
<b>hitz beste egin</b> 'gaia aldatu'	«Haren <b>hitz beste egiteak</b> lasaitu ninduen, eta "Le temps de cerises" kantatzen hasi nintzen ahapeka...»	(54)
<b>hizketan</b> 'berbaz'	«Kontuak kontu, Meza Berria eman zuenez geroztik, don Roman izaten hasi zen ordu arte Roman izan zena, eta berorika hasi nintzaion <b>hizketan</b> .»	(20)
<b>hizpidera ekarri</b> 'aipatu, hizketaldian gaia sartu'	«...Madrilen boxeolari zebilen garaian herriraino iritsi zitzaigun zurrumurrua <b>ekarri</b> nion <b>hizpidera</b> .»	(24)
<b>hunkitu</b> 'penatu, zirrara eragin'	«Ni <b>hunkitzea</b> nahi zuen, eta lortu ere lortu zuen une batez, baina berehala gainditu nuen ahuldade-unea.»	(47)
<b>hurreratu</b> 'hurbildu, inguratu'	«Roman larri <b>hurreratu</b> zitzaidan alkandora-iduna lotuz, eta ahapeka esan zidan...»	(31)
<b>idiarena jo</b> 'masturbatu'	«Gogorrago jo behar zela, haritza botatzeko ez zela labana aski. Amanciok orduan berak <b>idiarena joko</b> zuela eta kopoirik dibinoena beteko zuela	(17)
<b>ifrentzuz</b> 'zerbaiten atzeko alde' (aurkia eta ifrentzuz)	«Gero jakak elkarri lotu, mahukak <b>ifrentzuz</b> jarri, eta mahuketatik barrena pasatu zituzten bi adar haiek.»	(112)
<b>inondik ere</b> 'zalantza barik, duda gabe'	«Ikusi gintuen obispoak halako batean, eta espantuka hasi zen guri deika. Larritasunezko unea zen, <b>inondik ere</b> .»	(109)
<b>ipurtargi</b> 'argia ematen duen zizarea'	«...ongi ereindako haziak fruitu ematen dakiela sasi artean ere, eta <b>ipurtargi</b> baten argia nabarmenago dela ilunpean laharraren arantzak baino.»	(58)
<b>iragaitzaz</b> 'pasadan bezala, irmotasun barik'	«"Auskalo nondik bahitua izango duzuen", esan nuen, <b>iragaitzaz</b> bezala, eta trago luzea jo nion.»	(73)
<b>irmotasunik gabe</b> 'tinkotasunik gabe, indar barik'	«Ni ez noa inora! — esan nion ahapeka, <b>irmotasunik</b> gabe.»	(12)
<b>itzulikatu</b> 'irauli, buelta hartuta jarri'	«Bihotza <b>itzulikatu</b> zitzaidan ustekabeko galdera harekin.»	(25)
<b>jainko-gorotz!</b> 'kaka zaharra!'	«— Orain eraman behar al duzue?, <b>jainko-gorotz!</b> Esku gu ginela...»	(71)
<b>jauzika</b> 'saltoka'	«...eta gaztetxo batek bezala sentitzen zuela, bularraldean <b>jauzika</b> .»	(79)
<b>jebo</b> (despektiboa) "anormala"	«Bestela, abertzale <b>jebo</b> horiengana edo karlista txapelgorriengana inguratuko dituk eta!»	(15)
<b>jostarin</b> 'olgetun, jolasean bezala'	«Algara polita sortu zuen ateraldiak, eta Karmenek, harro, musu eman zidan <b>jostarin</b> .»	(17)
<b>kaba</b> 'sufirimendua, sufrikarioa,	«Zuri zituen begiak; gorputza astindu zuen, eta arnasa eten, azken <b>kabaren</b> kolpe betean.»	(96)
<b>kaskagor</b> 'burugogorra, egoskorra'	«— Ez al duk entzun zer esan dian, agure <b>kaskagorra</b> — sartu nintzen ni—. Apaiza balitz, oraintxe bertan labana sartu, eta, hesteak aterata...»	(53)
<b>kasulla</b> 'abade edo apaiz jantzia'	«Baina ez izengoitiz bakarrik; apaiza, igandero <b>kasulla</b> jantzi eta meza ematen duena.»	(64)
<b>katixima</b> '(erlijio) irakaspena'	«"Ez zagok esku txarrean iraultzaren soroa" , burutu zuen nekazariaren <b>katixima</b> .»	(58)
<b>kikil-kikil</b> 'meko-meko, ausardia galduta'	«Roman sukaldearen izkina baten kontra zegoen <b>kikil-kikil</b> eginda...»	(30)
<b>kirrinka</b> 'soinu edo hots bizia'	«...nire burutazioetan sartua, leihoko saretaren zirrikitu artetik lehen eguzki-printzak sumatzen ari nintzenean, logelako atearen <b>kirrinka</b> entzun nuen.»	(27)




<b>konformatu</b> 'adostu'	«Azkenerako, behintzat, Romanekin, Sabigainen gelditzeko <b>konformatu</b> nuen.»	(32)
<b>kosta ahala kost</b> 'edozer kostata ere, nola edo	«Oso interesatua agertu omen ziola zehatz-mehatz. Oso interesatua agertu omen zen gure kasuarekin, <b>kosta ahala kost</b> lortu behar genuen	(60)
<b>kota</b> 'oiloek lo egiteko makila	«Nahi zuena egiteko esan nion, baina lo egiteko, behintzat; oiloak <b>kotan</b> bezala nahi bazuen, baina lo; biharamuna luzea izango zela eta.»	(24)
<b>Kotxintxina</b> 'ekialde urruneko eskualdea'	« <b>Kotxintxinakoa</b> balitz ere, nori bururutzen zaio.»	(11)
<b>kupituta</b> 'errukituta, pena hartuta'	«— Ondo da — esan nion <b>kupituta</b> —. Salako sofa horretan etzan daiteke.»	(23)
<b>labana</b> 'ganibeta'	«berorrek ikusi du! — Hasi nintzen, <b>labana</b> mahai gainean utzi eta desenkusatzan.»	(10)
<b>lahar</b> 'sasia, arantzedun landarea'	«...ongi ereindako haziak fruitu ematen dakiela sasi artean ere, eta ipurtargi baten argia nabarmenago dela ilunpean <b>laharraren</b> arantzak baino.»	(58)
<b>larrua jo</b> 'amodioa egin'	«— Lo ez, <b>larrua jo</b> behar dut goizaldera arte! — erantzun nion, supizturik.»	(23)
<b>lauso</b> 'nahasita, zehaztasun barik'	«Ni neu ere ez nengoen oso santu, egia da; <b>lauso</b> ikusten nuen dena gure aurrean.»	(78)
<b>lerdejario</b> 'adurra ahotik behera'	«— Barre-algara <b>lerdejario</b> batean lehertu zen orduan, niri begi-keinu lizun bat eginda...»	(41)
<b>lilura</b> 'xarma, enkantua'	«Libertariotik izena honek ere! — esan zuen Karmenek harenganako <b>lilura</b> galdurik bezala...»	(30)
<b>linotipista</b> 'inprimatzeko testuen	«...eta Parisen ibili zen, egunez inprimeria batean <b>linotipista</b> eta gauzez ikasketak egiten.»	(16)
<b>loki</b> 'buruaren aldea, belarri aurrekoa'	«Baina Fructuosok Jetruri lepotik heldu, eta pistola jarri omen zion <b>lokian</b> . Karmenek berak ozta-ozta lortu omen zuen hango nahaspilatik ihes egitea.»	(64)
<b>loria</b> 'aintza, ospea'	«...eta nola hurrengo baterako utzi beharko zuen martirioaren <b>loria</b> ; zerurako bide seguruen izan arren, oraingoz libratua zela hormatzarra probatzetik.»	(78)
<b>mahats makatza</b> 'basa mahatsa, gogorra'	«Eta zer zen ba libertario bat, biraorik esaten ez bazuen (...). Deus ez. <b>Mahats makatza</b> .»	(17)
<b>mahuka</b> 'manga'	«Gero jakak elkarri lotu, mahukak ifrentzuz jarri, eta <b>mahuketatik</b> barrena pasatu zituzten bi adar haiek.»	(112)
<b>maindire</b> 'izara, oheko oihala'	«Berak hanka zuela eskas, eta <b>maindirea</b> jaso zuen, beraren zango-motza ikus genezan.»	(115)
<b>makulu</b> 'ibiltzen laguntzeko makila'	«Obispoari bi <b>makulu</b> handi eman genizkion, eta autoz igoarazi gudu-lerrora, Santutxoraino.»	(127)
<b>malda</b> 'aldapa'	«Oinez jaitsi zuen Albizturrerako <b>malda</b> .»	(126)
<b>mandio</b> 'lastategia, belarra-eta gordetzeko makila'	«Handik barrurago sarrarazi, eta, ukulutik barrena, <b>mandiorako</b> eskailerak seinalatu zizkigun.»	(81)
<b>matxinatu</b> 'matxinoa, zerbaiten aurka altxatu dena'	«Uztail bukaeran, Loiolako hotelean izan ziren <b>matxinatuen</b> kontrako gudu gogorrenak.»	(73)
<b>mauser</b> '(arma baten marka), fusila'	«"Goazen" esan nuen, eta Karmen joan zen aurrena, <b>mausera</b> bizkarrean hartuta, zaputzean.»	(31)
<b>mehatxari</b> 'mehatxu eginez'	«...beldur balitz bezala, besoa babestzat jaso. Karmen zeukan ia gainean, <b>mehatxari</b> .»	(30)
<b>mende hartu</b> 'menperatu, preso hartu'	«...eta, burkideak <b>mende hartuta</b> , bizkor asko eskulotu zituzten bizkarraldean.»	(106)
<b>miatu</b> 'arakatu, arduraz bilatu'	« <b>Miatu</b> genuen ingurune guztia, errepidearen bi aieketan berrehun bat metro...»	(108)



<b>mizpira</b> 'fruitua, hori-marroia'	«...gerezi denbora ia bertan <b>mizpira</b> ustelena bihurtu zitzaigula burutik kendu ezinik.»	(54)
<b>mojakume</b> 'moja izateko bidean-edo'	«—Beno, moja-moja ere ez... <b>mojakumea</b> ... —esan zuen Karmenek, lau begi beregan iltzaturik ikusi eta.»	(66)
<b>moskor</b> 'okerdura'	«...eta hango buru egiten zuen kapitainari eskatu ziola gizatasunez urki-enbor ahalik eta leunena, <b>moskorrik</b> eta korapilorik gabea, azal zuri-zuri bat.»	(130)
<b>muin egin</b> 'musu antzekoa eman'	«Atea zabaldu, eta ezkaratzean obispoa sartzen ikusi zuenean, eskuari heldu eta <b>muin egin</b> zion hark ere eraztunean.»	(81)
<b>musaje</b> 'aurpegi, piura, itxura'	«Durrutiren bidaliari argibideak eman beharko nizkiola bet-betan, Sabigainen zegoela zain, eta ez zuela <b>musaje</b> onik.»	(36)
<b>negar-adiaka</b> 'negar intzirika'	«Ni gidari, Roman aldamenen, eta Karmen atzean, <b>negar-adiaka</b> oraindik.»	(63)
<b>nonbait</b> 'antza, itxuraz, agidanez'	«Zurgina ogibidez. Inguru hartako baserriko semea zen nonbait...»	(115)
<b>oies</b> 'herritarra, "rústico"'	«...bazezilen zerbait, ordea, nire barruan arrats hartako jarduna higuigarri egiten zidana. Etena horren modu <b>oiesean</b> antzetzua ikusteak, beharbada.»	(17)
<b>oilartu</b> 'harrotu'	«Nik ez dut bekaturik garbitzeko! —hasi nintzaion <b>oilartzen</b> .»	(10)
<b>oinaze</b> 'sufrimendua, min handia'	«Senperrenak ikusi zituela, hori bai, baina joan zirela <b>oinazeak</b> .»	(118)
<b>opamahai</b> 'aldarea'	«Era horretan mintzatu zitzaigun obispoa, <b>opamahairako</b> prestaturiko arkumearen begiak ezkutatu, eta duintasun ikasi batez...»	(71)
<b>orbel</b> 'hosto iharrak'	«Arroilan behera jaitsi ginen, <b>orbela</b> eta lokatza dena batera nahasten zen parajea...»	(109)
<b>orekari ezin utsirik</b> 'oreka galtzeko puntuan'	«...aulkia seinalaturik eta galtzak jantzen ari nintzela, dena batera egin nahi, eta <b>orekari ezin utsirik</b> ...»	(9)
<b>pattar</b> 'likorea'	«Kafesne bero bana hartu zuten haiek; Karmenek eta nik, ardoa; Ibarbiak, kopa bete <b>pattar</b> .»	(127)
<b>pendiz</b> 'malda, aldatsa'	« <b>Pendizaren</b> kontra jarrita zeukan bizkarra eta zaurituta ematen zuen.»	(95)
<b>pinporta</b> 'landareen begia, kimua'	«—Ikusten, nola hire bihotz beltz horretan <b>pinporta</b> txuriren bat gelditzen den oraindik?»	(22)
<b>printzak</b> 'errainuak, distirak'	«...nire burutazioetan sartua, leihoko saretaren zirrikitu artetik lehen eguzki- <b>printzak</b> sumatzen ari nintzenean, logelako atearen kurrinka entzun nuen.»	(27)
<b>propio</b> 'beren-beregi, apropos'	«Beraren hurrengo bidali zuela hark <b>propio</b> Bilbora, Donostiako gure jendea...»	(34)
<b>santujale</b> 'elizkoia'	«Ez haiz, ba, hi izango <b>santujale</b> horietako bat?»	(18)
<b>sareta</b> 'sarea edo hesia'	«...nire burutazioetan sartua, leihoko <b>saretaren</b> zirrikitu artetik lehen eguzki-printzak sumatzen ari nintzenean, logelako atearen kurrinka entzun nuen.»	(27)
<b>sega</b> 'kodaina (belarra ebakitzeko)	«Santutxoko bentaren ondoan, <b>zumardi</b> txiki baten itzalpean, han ari zen etxeko nagusia sega pikatzen.»	(120)
<b>segaila</b> 'fina, lerdena, liraina'	«Bitxi egin zitzaidan aurren-aurrenetik haren figura segaila kale-jantzian ikustea, aspaldi ez eta, arratsalde hartan...»	(10)
<b>senperrenak ikusi</b> 'gorriak ikusi, txarto-txarto'	« <b>Senperrenak ikusi</b> zituela, hori bai, baina joan zirela oinazeak.»	(118)
<b>supizturik</b> 'sutan jarrita, animu handiz'	«—Lo ez, larrua jo behar dut goizaldera arte! —erantzun nion, <b>supizturik</b> .»	(23)
<b>sutu</b> 'su eman (tiro eman), disparatu'	«...deskuiduan dena gaizki ateratzen bazen, preparatzeko; obispoaren ondoan ikusi nahi nuela, eta hormaren kontra! Lasai asko <b>sutuko</b> niela bie...»	(46)





<b>tirabide</b> 'tiroen norabidean'	«Alde batera baztertu zen, eta Fructuoso eta biok geratu ginen aurrez aurre, ni haren <b>tirabidean</b> .»	(21)
<b>topa</b> 'zeozer ospatzeko kopak-edo elkartu'	«Azkenburukoetan, Irujok, zutitu, eta <b>topa egin</b> zuen, Obanosko infantoen ikur-esaldia esaten zuela...»	(100)
<b>toxa</b> 'tabakoa gordetzeko ontzia edo poltsa'	«Zigarro bat falta nuen, baina salan utzia nuen <b>toxa</b> , eta nahiago nuen barau, beste sermoi bat entzun baino.»	(26)
<b>txalma</b> 'zamak garraiatzeko tresna,	«Asto gainean, <b>txalma</b> edo bastak edo zerbait jarriko ziotela, eta hantxe sartuta ongi joango zela orduan.»	(120)
<b>txelaia</b> 'zelaitxoia'	«...errepideak egiten zuen barrurako bihurgune baten ondoko <b>txelaian</b> , hantxe aurkitu genuen kamioi txiki bat ondo ezaguna...»	(104)
<b>txerrenkume</b> 'deabrukumea'	«"Haiek nahi, bai... baina bururatuko zaiguk guri zerbait orduan, atzeko <b>txerrenkume</b> horiek bazterrean uzteko moduren bat" .»	(46)
<b>txori-samalda</b> 'txori oiloa'	«Haltzen adaburuak ikaratu egin ziren, eta <b>txori-samalda</b> bat atera zen ihesi.»	(111)
<b>txulomiaketan</b> 'zuloak miatzen, arakutzen'	«Desenkusutzen hasi nintzaion, baina berehala konturatu nintzen ezereen susmo txarrik ez zidala hartu, ni horren goiz egoitzan eta <b>txulomiaketan</b>	(34)
<b>uhurika</b> 'aiurika, uluka, txilioka'	«Karmen nire gainean zangalatrau jarrita, gora eta behera, eta ni <b>uhurika</b> ari nintzaiola, sentitu nuen ate-hotsa aurrena...»	(7)
<b>urdemutur</b> 'txerri itxurakoa'	«...Frantziatik etorri berria zen hura, eta okindegiko nagusi <b>urdemutur</b> harentzat ari nintzen ni lanean.»	(20)
<b>xalotasun</b> 'apaltasuna, izaera xumea'	«Hunkitu egin ninduen Karmenen <b>xalotasun</b> erabatekoak.»	(62)
<b>xuxurlatu</b> 'ahapeka, isilean esan'	«Karmen San Inazioaren aurrean zegoen "Inazio gure patroia handia" <b>xuxurlatuz</b> , santuari hatz erakuslean kateatuta zeukan botila hutsa lapurtzen	(75)
<b>zakar</b> 'modu gogorrean'	«Tapaki bat bota nion <b>zakar</b> , hain zakar ere, sofa ondoko mahaia jo eta telefonoa bota bainuen lurrera.»	(24)
<b>zakarragotu</b> 'haserre xamar jarri'	«— Beroago egongo duk infernua eltzea! — <b>zakarragotu</b> nintzaion.»	(79)
<b>zamalkatu</b> 'zaldi gainean ibiltzea,	«"Bai , txirrin", erantzun zidan jauzika, eta, ipurmasailak estutzea ezproi sartzea izan balitz bezala, bizkorrago ekin zion <b>zamalkatzeari</b> .»	(7)
<b>zanga-zanga</b> 'tragoskada handiekin'	«Katilua bete kafesne edan zuen <b>zanga-zanga</b> .»	(83)
<b>zangalatrau</b> 'izterrak alde banatara zabalik'	«Karmen nire gainean <b>zangalatrau</b> jarrita, gora eta behera, eta ni uhurika ari nintzaiola, sentitu nuen ate-hotsa aurrena...»	(7)
<b>zaputzean</b> 'mukerturik, haserre xamar, purrustari'	«"Goazen" esan nuen, eta Karmen joan zen aurrena, mausera bizkarrean hartuta, <b>zaputzean</b> .»	(31)
<b>zerbaitetan eraman</b> 'irabazi, garaitu'	«Inork ez ziola <b>eramango horretan</b> .»	(116)
<b>zirkinik</b> 'apurtxo bat ere, ezertxo ere'	«Romanen azalpen guztiak entzun zituen, behintzat, <b>zirkinik</b> mugitu gabe...»	(65)
<b>zornezaku</b> 'ugerdia, zikin-zikina,	«Azkenean, sartu, eta atea itxi zuen."... <b>zornezaku</b> alaenak! ", erantsi zuen orduan. Lasai hitz egin genezakeen, behintzat, "Aurrera", esan suen.»	(45)
<b>zotin</b> 'arrangurazko negarra eta	«— Hogeit garbitu nahi ditiztek! Ulertzen duk? Hogeit! — berritu zidan Karmenek aurreko kontu bera, <b>zotin</b> batean.»	(62)
<b>zumardi</b> 'zuhaitz mota-basoa'	«Santutxoko bentaren ondoan, <b>zumardi</b> txiki baten itzalpean, han ari zen etxeke nagusia sega pikatzen.»	(120)
<b>zurdaki</b> 'ile lodi-luze-gogorrez eginikoa'	«Azkenean han etorri zen Fructuoso bi pote handi pintura esku banatan, gorria bata beltza bestea, eta margotzeko bi <b>zurdaki</b> handi jakaren patriketan	(44)
<b>zuztar-zuztarretik</b> 'sustrai-sustraitik'	«Hobe zela barrabas-belarra bilatu, eta <b>zuztar-zuztarretik</b> ateratzea, artoa galtzen ikusi, eta negar egitea baino.»	(15)